

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **2021eko AZAROAREN 25ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2021eko azaroaren 25ean, arratsaldeko 15.30 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira eginiko bilkura honetan.

#### ZINEGOTZIAK:

Vicente Garcia Momblona  
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez  
Maialen Alonso Labandibar  
Aitor Beistegui Fiallegas


Bere ezin etorria adierazten dute: Mireia Ruiz Delgado eta Jesus Maria Tejada Cantero

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
  - **2021eko urriaren 28an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 28 de octubre de 2021.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Larraulgo Urbeltz auzoko 36an dagoen Antton Amonarriz Kultur Etxea eraikina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari bere erabilpena lagatzea, eskola txikia modura erabiltzeko./ Cesión del edificio Antton Amonarriz Kultur etxea, situado en Urbeltz auzoa nº 36 de Larraul, al departamento de educación del Gobierno Vasco para su uso educativo de Eskola Txikia.**
- 5. 2002an Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo herrien artean erosi zen eszenatoki mugikorraren erabilpena kudeatzeko hitzarmenaren berrikuntzaren onespena, hala bada./ Aprobación de la renovación del convenio para la gestión del uso del escenario móvil adquirido en 2002 entre los Ayuntamientos de Aduna, Alkiza, Asteasu y Larraul.**
- 6. Beste batzuk/Otros.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 7. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

**7.1. Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna dela eta, adierazpen instituzionala onartzea./ Aprobación de la declaración institucional con motivo del día internacional de la eliminación de la violencia contra la mujer.**

#### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO**

- ▣ 2021 urteko urriaren 28an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.

#### **BIGARRENGO PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**


Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 131/2021etik 154/2021era Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

#### **HIRUGARRENGO PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

OSTARBI ERAIKUNTZA ETA ZERBITZUAK	108.839,73
EUROCONTROL	175,45
CRUZ ROJA ESPAÑOLA	97,20
BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA	290,40
TOLOSLDEKO MANKOMUNITATEA	820,57
LARRAULGO HERRI OSTATUA	79,65
NATURTZAINDIA ELKARTEA	200,00
LARRAULGO HERRI OSTATUA	48,00
LARRAULGO HERRI OSTATUA	30,00
IKASIGROUP SOLUTIONES	122,19
KIROLZER	31,50
BERRI LANTEGIA	120,52
TOLIN PHOTOGRAPHER	30,00
GIRODSERVICES	15.585,34
LARRAULGO HERRI OSTATUA	98,60
MATTIN GIZARTE ABENTURA	182,40
MAQUELSA	38,22
MELLIFERA	1.872,02
SECURITAS DIRECT	95,59



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

URRATS	232,80
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	195,73
SECURITAS DIRECT	1,21
SECURITAS DIRECT	0,39
SECURITAS DIRECT	50,22
SECURITAS DIRECT	48,40
ZU ETA BIOK	1.446,46
BASAJAUN LIBURUDENDA	40,95
GUREAK MARKETING	4,61
OSCAR GALINDO	121,00
EBA ERKIZIA	1.661,28
ITZIAR UZKUDUN	50,00
TELEFONICA	1,20
ELECNOR	20.304,22
SOROA	10.890,00

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera 163.805,85 Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

**LARRAULGO URBELTZ AUZOKO 36an DAGOEN ANTTON AMONARRIZ KULTUR ETXEA ERAIKINA EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILARI BERE ERABILPENA LAGATZEA, ESKOLA TXIKIA MODURA ERABILTZEKO**


Ikusita Larraulen orain arte, Asteasuko Pello Errota ikastetxekeo aula desplazatu moduan jardun dela 2-12 urte bitarteko hurren hezkuntza zerbitzua.

Ikusita, 2022-2023 ikasturtean martxan jarriko dela Larraulgo Herrian, Larraulgo Eskola txikia.

Ikusita, aipaturiko Larraulgo Herri ikastetxea, eskola txiki moduan martxan jarri ahal izateko, gaur egun kokatuta dagoen Antton Amonarriz Kultur etxea, honen erabilera Hezkuntza Sailari laga behar zaiola eskola txikia modura erabili ahal izateko.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Larraulgo Urbeltz auzoko 36zenbakian kokatuta dagoen Antton Amonarriz Kultur Etxea, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari bere erabilpena lagatzea, eskola txikia modura erabiltzeko, zerbitzu hori mantentzen den bitartean.

BIGARRENA: Erabaki honen berri, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **2002an ADUNA, ALKIZA, ASTEASU ETA LARRAULGO HERRIEN ARTEAN EROSI ZEN ESZENATOKI MUGIKORRAREN ERABILPENA KUDEATZEKO HITZARMENAREN BERRIKUNTZAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusita 2002 urtean Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo herrien artean erosi zen eszenatoki mugikorraren erabilpena kudeatzeko hitzarmenaren berrikuntza batzuk proposatu direla, hitzarmen berrikuntzaren zirriborroa aztertu duelarik Larraulgo Udalak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2002an Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo herrien artean erosi zen eszenatoki mugikorraren erabilpena kudeatzeko hitzarmenaren berrikuntza onestea. Ondorengoa diolarik:


#### **“2002an ADUNA, ALKIZA, ASTEASU ETA LARRAULGO HERRIEN ARTEAN EROSI ZEN ESZENATOKI MUGIKORRAREN ERABILPENA KUDEATZEKO HITZARMENAREN BERRIKUNTZA**

Asteasu, 2021 eko urriaren 4 a

Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo udal ordezkariak ahalmen osoa aitortzen diote elkarri zuzenbidearen arabera hitzarmen hau sinatzeko.

#### AZALPENA

1.- Aipatu udalerriek eszenatoki mugikor bat erosteko eta bera kudeatzeko hitzarmen bat sinatu zuten baina bidean hainbat zalantza sortu dira, batik bat hitzarmen hartan jaso ziren



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

klausula batzuk betetzea ezinezkoa gertatu delako. Honen ondorioz, lau udalerriko alkateok bildu gera Hitzarmenaren atal batzuk berritzeko asmoz.

### KLAUSULAK

**LEHENA.-** Hitzarmenaren helburua

Hitzarmen honen helburua da goian adierazitako Udalen artean 2002 an erosi zen eszenatoki mugikorraren erabileraren kudeaketa arauak berri eta eguneratzea.

**BIGARRENA.-** Eszenatokiaren ezaugarriak. Klausula hau bere horretan mantentzen da. 2020 an berrikuntza batzuk izan ditu, ezaugarriak aldatu gabe ( egurrak eta toloa berritzea) eta lau udalen artean ordaindu ziren, hitzarmen honen hirugarren klausulan jasotako proportzioan.

**HIRUGARRENA.-** Jabetza. Klausula hau bere horretan mantentzen da.

Eszenatokiaren jabetza lau Udalena izango da "pro indiviso" moduan, behin bakoitzari dagokion ordainketa egindakoan.

Eszenatokiaren aurrekontua 23.982,23 eurotako da, eta ordainketa udal bakoitzak modu honetan bideratu beharko luke:

Koste osoaren %50 a Udal guztiek berdin ordaindu beharko lukete. Beste %50 a biztanleagoaren arabera udal guztien biztanleriak %100 a osatzen badu, Udal bakoitzak dituen biztanleen proportzioan.

Kalkulu hau bera erabiliko da eszenatokiaren mantentzeak, ezbeharrak ( lapurreta, puskatzea) ea... sorrazitako gastu bereziak ordaintzeko orduan.

Bestalde, berdin, inolako diru-sarrerarik sortzen badu edota diru-laguntzarik jasotzen bada.

**LAUGARRENA.-** Jasotzeko lekua. Idazkera berria :

Asteasuko Udalaren esku geldituko da eszenatokiaren biltokia, berak baitu horretarako leku egokia.

**BOSGARRENA.-** Kudeaketa arautegia.

- A) Kudeaketaren ardura Asteasuko Udalak hartzen du
- B) Erabiltzaile bakoitzak 60 euro ordaindu beharko ditu, eszenatokiaren gastu aruntetarako, Asteasuko Udalak ezik, kudeaketaren gain egiten delako.
- C) Erabilpena printzipioz, jabe diren herriek soilik eramango dute. Beste udalek eszenatokia eskatzen badute, jabe diren udaletako arduradun guztien onespena telefonoz lortu beharko luke kudeaketaren arduradunak, dagokion baldintzatan



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

baimena emateko. Udala ez diren beste entitate batek eskatuko balu, beti bere herriko udalaren izenean egin beharko du eskaera idatziz.

- D) Muntaia eta desmuntaia honela egingo da : herri bakoitzak bere brigadako langile bat izendatuko du. Horrela 4 pertsonako talde bat osatuko da eta horiek izango dira lan horien arduradunak eta eszenatokia behar denero lau herri horietara joango dira.
- E) Jabe ez diren beste udalei eszenatokia uztea onesten bada, honako baldintzetan egingo da:
- Erabiltze-tasa ordaindu beharko dute : 300 euro
  - Eszenatokiaren erabilpen egokia bermatzearren, 300 euroko fidantza jarri beharko dute, eraman aurretik.
  - Eszenatokiaren eskaera egiten dutenean arduradun bat izendatu beharko dute. Pertsona hori arduratuko da eszenatokia muntatu eta desmuntatzeaz eta modu egokian bueltatzeaz ere.
  - Eszenatokia ez bada modu egokian jasota bueltatzen, Asteasuko udalak fidantza erabiliko du, bere brigadak hura ondo jartzen pasatzen dituzten orduak estaltzeko.
- F) Urte amaieran eszenatokiaren erabilera gutxiago jasotzen diren tasen kopuruaren %25 a Asteasuko udalari emango zaio, kudeaketa lanen ordainketa gisa.
- G) Printzipioz herri bakoitzeko festa eta aste kulturalak errespetatu beharko lirarteke bere erabilpenari dagokionez, honako hau izanik beren egutegia:
- Aduna: Abuztuko Ama Birjinetako jaiak  
Alkiza: Maria Birjinaren jaiak, irailaren hasiera  
Asteasu: S. Pedrotako jaiak  
Larraul: San Esteban eta San Bartolome jaiak


Aipatu data hauetaz gain beste eskaerarik balego, beti ere lehentasuna lehendabizi egindakoak izango luke bi eskaera batera suertatuko balira.

SEIGARRENA.- Hitzarmen honetan adierazitako punturen bat ez betetzeak hitzarmen hau eten eta berrikusteko aukera emango du.

ZAZPIGARRENA.- Norbaitek hitzarmen honetatik kanpo gelditu nahi izanez gero, honen berri gutxienez ere hiru hilabeteko aurrerapenez eman beharko luke eta bere ekarpena eta eskubideak galduko lituzke inolako kalte-ordainik gabe.

Beste aldeek hitzarmen hau berrikusi beharko lukete.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmen honek, sinatzen denetik izango ditu ondorioak eta lau parte hartzaileak behartuko ditu.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmen honen izaera administratiboa litzateke eta bere interpretazioa eta garapena Herri Administrazioen artean egiten diren Lankidetzako Hitzarmenetako ordenamendu juridiko administratiboak arautuko du.

HAMARGARRENA.- Hitzarmen hau interpretatzeko eta betetzeko garaian sor daitezkeen arazoak Administrazioarekiko Auzien esparruak ezagutu beharko eta erabaki beharko ditu.

Eta dokumentu honetako klausuletan dauden zehaztapenekin ados daudela erakusteko izenpetu egiten dute ale laukoiztuan izenburuan adieraziko leku eta egunean.”

BIGARRENA: Maite Arana Perez, Larraulgo alkatesa ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

### **SEIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

Ez dira aurkezten.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

#### **7.1.EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA, ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA**


Ikusirik, Udal taldeak aurkezturiko Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna dela eta, adierazpena instituzionala, non ondorengoa dioen:

#### **“ AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA 2021eko azaroaren 25a**

Gaur, azaroak 25, *Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna* ospatzen dugu. Nazio Batuen Batzar Nagusiak egun hori izendatu zuen, mugimendu feministak indarkeria hori salatzeko egiten ari ziren mobilizazioak aitortuz.

Azaroaren 25ean ikusarazten dugu indarkeria matxista giza eskubideen urraketa hedatuena, iraunkorra eta suntsitzaileena dela gaur egungo munduan, baita gure gizartean ere. Horregatik, beharrezkoa da indarkeria matxista horren egiturazko jatorria onartzea eta haren dimentsio guztiei heldzea.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista egiturazko desberdintasun egoeran oinarritzen da, gizartean eta familian, sexuaren arabera, rol eta erantzukizunen banaketa tradizionalan oinarrituta. Errealitate



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

horrek emakumeak gizonen mende jartzen ditu; horrela, emakumeen aurkako indarkeria kontrol sozialerako funtsezko tresna bihurtzen da desberdintasun horrek iraun dezan eta betikotu dadin.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista hainbat modutan gerta daiteke, dela modu fisikoan, psikologikoan, sexualean, sinbolikoan edo bikarioan, eta hainbat eremutan: bikotekidea, familia, aisialdia, lana, kirola, sare sozialak. Gainera, emakumeen eskubideek eta berdintasunaren arloko politika publikoek aurrera egin ahala, erresistentzia eta korrante ideologiko matxistak errepikatzen dira, genero justizian oinarritutako gizartearen garapena oztopatu eta indarkeria matxistaren egiturazko esentzia ikusezin bihurtu nahi dutenak, eta, beraz, indarkeria hori legitimatzen dutenak. Horietako bat bera ere ezin da onartu, justifikatu edo babestu. Horietako bakar batek ere ez du lekurik gure lurraldean.

Nazio Batuek ezarritako Garapen Jasangarriaren Helburuetan jasotzen den bezala, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko guztion arteko, eragile sozial eta instituzionalen arteko, lankidetzeta bideak indartu behar ditugu, eraginkorrakoak izan gaitezkeen eta izan behar dugun prozesuak indartuz.

Foru Aldundiak, *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Foru Planean* jasotako berdintasunezko gizartea eraikitze helburuan, berretsi egiten du indarkeria matxistaren aurka lan handia egiten jarraitzeko konpromisoa. Lan horrek, COVID-19ak sortutako egoeraren aurrean, are eta indar handiagoa hartzen du, indarkeria horri bakardade eta isolamendu handiagoko egoeretan aurre egiten dioten emakume eta neska askoren kalteberatasunaren aurrean.


Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako konpromiso partekatu horren esparruan, Larraulgo Udalak konpromiso hauek azpimarratu nahi ditu:

- Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko sentsibilizazioan, prebentzioan eta prestakuntzan aurrera egitea, bereziki belaunaldi gazteenetan, hezkidetzaren bidez indarkeria horren oinarri diren rolak eta estereotipoak errepika ez ditzaten.
- Lurraldean emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko eredu indartzea, biktimen laguntza psikosoziala areagotzeko eta ahalduntzeko ibilbideak errazteko.
- Erakundeen arteko koordinazioa, Gipuzkoan indarkeriari arreta integrala, eraginkorra eta kalitatezkoa emateko bide gisa.

Era berean, azaroaren 25ean, azpimarratu nahi dugu indarkeria matxista ez dela soilik indarkeria fisiko edo sexualaren bidez adierazten. Eguneroko eraso txikiak ere izaten dira, eta, behin eta berriz errepikatzearen ondorioz, eragina izaten dute eta emakumeei kalte egiten diete. Eraso horiek, askotan, gure begien aurrean gertatzen dira, eta, erasotzailea edo biktima ez garenean, gehienetan ez dugu ezer esaten.

Gauzak aldatzeko unea da, emakumeen askatasunerako eta duintasunerako hain kaltegarria den errealitate hori eraldatzeko unea. Horretarako, funtsezkoa da egoera horiek diren bezala identifikatzea: gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunei eustea helburu duen indarkeria matxistaren zati bat. Izan ere, horrela identifikatzen baditugu, ezin izango ditugu justifikatzen jarraitu. Eta hori aurrerapauso handia izango da gizarte justuagoa eta berdina eraikitzeko.





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**Indarkeria matxistaren aurrean, ez zaitetz ikusle huts bat izan.”**

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

**LEHENA:** Udal taldeak aurkezturiko “Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna”, adierazpena instituzionala, bere osotasunean onestea.

*Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 16.06 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*